activo y pasivo, o el plazo en el que se realizarán los activos o se liquidarán los pasivos. En concreto, los Administradores no estiman que existan circunstancias que vayan a derivar en una situación de incertidumbre sobre la continuidad de la Sociedad, teniendo el compromiso de los Accionistas sobre la obtención de ingresos suficientes para mantener sus resultados en un nivel razonable que permita la recuperación de todos los activos de la Sociedad en el desarrollo normal de su actividad operativa.

Los Administradores de la Sociedad consideran que no existen dudas de la capacidad de la Sociedad para hacer frente a las deudas y obligaciones en el curso ordinario de los negocios una vez considerados los factores anteriormente citados, razón por la que han formulado las presentes cuentas anuales bajo el principio de empresa en funcionamiento.

2.5 Comparación de la información

Las cuentas anuales adjuntas presentan a efectos comparativos, con cada una de las partidas del balance de situación, de la cuenta de pérdidas y ganancias, del estado de cambios en el patrimonio neto y del estado de flujos de efectivo, además de las cifras del ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2024, las correspondientes al ejercicio anterior.

2.6 Agrupación de partidas

Determinadas partidas del balance de situación, de la cuenta de pérdidas y ganancias, del estado de cambios en el patrimonio neto y del estado de flujos de efectivo se presentan de forma agrupada para facilitar su comprensión, si bien, en la medida en que sea significativa, se ha incluido la información desagregada en la presente memoria.

2.7 Cambios en criterios contables

Durante el ejercicio 2024 no se han producido cambios en criterios contables respecto a los aplicados en el 2023.

2.8 Corrección de errores

En la elaboración de las cuentas abreviadas no se ha detectado ningún error significativo que haya supuesto la reexpresión de los importes incluidos en las cuentas del ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2023.

3. Emaizten aplikazioa

Sozietatearen administratzaileek ekitaldiko emaitza aplikatzeko proposamena egin dute, eta Akziodunen Batzar Orokorrak onartu beharko du. Hona hemen proposamena (eurotan):

	2024
A resultados negativos de ejercicios anteriores / Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	(373.770)
Guztira / Total	(373.770)

4. Erregistratzeko eta baloratzeko arauak

Sozietateak urteko kontu hauek egiteko erabiltzen dituen erregistro- eta balorazio-arau nagusiak, aplikatzekoa den Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoaren arabera, honako hauek dira:

4.1 Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala, hasieran, eskuratzeko-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren arabera baloratzen da, eta, ondoren, dagokion amortizazio metatuaren eta narriadura-galeren (halakorik balego) arabera murriztea da (4.3 oharra).

Ibilgetu materiala osatzen duten elementuak kontserbatzeko eta mantentzeko gastuak egiten diren ekitaldiko galdu-irabazien kontura egozten dira. Aitzitik, ondasun horien ahalmena edo eraginkortasuna handitzen edo bizitza erabilgarria luzatzen duten hobekuntzetan inbertitutako zenbatekoak haien kostu handiago gisa erregistratzen dira.

Ibilgetu materialaren ordezkpenak edo berritzeak aktiboan kontabilizatuko dira, eta, hartara, ordeztutako edo berritutako elementuak kontabilitatetik kendu beharko dira.

Sozietatea ibilgetua amortizatzen hasten da martxan jartzen denetik aurrera eta metodo linealari jarraituz. Zehazki, erregistratutako eraikinek 33 urteko bizitza erabilgarria dute.

4.2 Higiezin inbertsioak

Egoera-balantzeko "Ondasun higiezin inbertsioak" epigrafeak alokairu-erregimenean ustiatzeko mantentzen diren lurren eta eraikuntzen balioak jasotzen ditu (6. oharra).

3. Aplicación de resultados

La propuesta de aplicación del resultado del ejercicio formulada por los Administradores de la Sociedad y que se someterá a la aprobación de la Junta General de Accionistas es la siguiente (en euros):

4. Normas de registro y valoración

Las principales normas de registro y valoración utilizadas por la Sociedad en la elaboración de estas cuentas anuales, de acuerdo con las establecidas por el Plan General de Contabilidad aplicable, son las siguientes:

4.1 Inmovilizado material

El inmovilizado material se valora inicialmente por su precio de adquisición o coste de producción, y posteriormente se minorará por la correspondiente amortización acumulada y las pérdidas por deterioro, si las hubiera (Nota 4.3).

Los gastos de conservación y mantenimiento de los diferentes elementos que componen el inmovilizado material se imputan a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que se incurren. Por el contrario, los importes invertidos en mejoras que contribuyen a aumentar la capacidad o eficiencia o a alargar la vida útil de dichos bienes se registran como mayor coste de los mismos.

Las sustituciones o renovaciones de elementos del inmovilizado material se contabilizan en el activo, con el consiguiente retiro contable de los elementos sustituidos o renovados.

La Sociedad empieza a amortizar el inmovilizado a partir de su entrada en funcionamiento y siguiendo el método lineal. Concretamente, las construcciones registradas tienen una vida útil estimada de 33 años.

4.2 Inversiones inmobiliarias

El epígrafe "Inversiones inmobiliarias" del balance de situación recoge los valores de terrenos y construcciones que se mantienen para explotarlos en régimen de alquiler (Nota 6).




Aktibo horiek ibilgetu materialari buruzko balioespen-arauaren arabera balioztatzen dira. Aktibo hoiek, beraz, hasieran, eskuratze-prezioaren, ekoizpen- edo ekarpen-kostuaren arabera baloratzen da, eta ondoren, amortizazio metatuen eta narriadura-galeren (egonez gero) arabera, murrizten dira, 4.3 oharrean adierazitakoaren arabera. Ibilgetu materiala osatzen duten elementuak kontserbatzeko eta mantentzeko gastuak egiten diren ekitaldiko galdu-irabazien kontura egotzen dira. Aitzitik, ondasun horien gaitasuna edo eraginkortasuna handitzen edo bizitza erabilgarria luzatzen laguntzen duten hobekuntzetan inbertitutako zenbatekoak haien kostu handiago gisa erregistratzen dira.

Ondasun higiezinetak inbertsioen amortizazioa modu linealean egiten da, 4 eta 33 urte bitarteko bizitza baliagarriaren arabera, xehetasun hauen arabera:

	Bizitza baliagarriko urteak / Años de Vida Útil
Eraikuntzak / Construcciones	33
Instalazio teknikoak eta beste instalazio batzuk / Instalaciones técnicas y otra instalaciones	7
Altzariak / Mobiliario	4
Beste ibilgetu batzuk / Otro inmovilizado	7

4.3 Aktibo ez finantzarioen balio-narriadura

Ekitaldi-itxieran behintzat, aktibo ez-korrienteren bat edo, hala badagokio, unitate diru-sortzailerren bat hondatuta egon daitekeen aztertzen du sozietateak. Zantzutik badago, zenbateko berreskuragarriak zenbatetsiko dira (5. eta 6. oharrek).

Zenbateko berreskuragarria arrazoizko balioaren (salmenta-kostuak kenduta) eta erabilera-balioaren arteko handiena da. Kontabilitate-balioa zenbateko berreskuragarria baino handiagoa denean, narriaduragatiko galera gertatzen da. Erabilera-balioa etorkizunean espero diren diru-fluxuen balio eguneratua da, eta horretarako, arriskurik gabeko merkatu-interes-tasak erabiltzen dira, aktiboari lotutako arrisku espezifikoek doituta. Beste aktibo edo aktibo-talde batzuetatik eratorritako diru-fluxu independenteak sortzen ez dituzten aktiboetarako, zenbateko berreskuragarria aktibo horien unitate diru-sortzaileentzat zehazten da.

Narriaduragatik egindako balio-zuzenketak eta horien itzulketa galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira. Balio-zuzenketak itzuli egiten dira korrekzio horiek eragin zituzten inguruabarrek izateari uzten diotenean.

Estos activos se valoran de acuerdo con la norma de valoración relativa al inmovilizado material, que se valora inicialmente por su precio de adquisición, coste de producción o de aportación y posteriormente se minora por las correspondientes amortizaciones acumuladas y las pérdidas por deterioro, si las hubiera, conforme a lo indicado en la Nota 4.3. Los gastos de conservación y mantenimiento de los diferentes elementos que componen el inmovilizado material se imputan a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que se incurren. Por el contrario, los importes invertidos en mejoras que contribuyen a aumentar la capacidad o eficiencia o a alargar la vida útil de dichos bienes se registran como mayor coste de los mismos.

La amortización de las inversiones inmobiliarias se realiza de forma lineal, en función de la vida útil estimada de entre 4 y 33 años, de acuerdo al siguiente detalle:

4.3 Deterioro del valor de los activos no financieros

Al menos al cierre del ejercicio, la Sociedad evalúa si existen indicios de que algún activo no corriente o, en su caso, alguna unidad generadora de efectivo pueda estar deteriorado. Si existen indicios se estiman sus importes recuperables (Notas 5 y 6).

El importe recuperable es el mayor entre el valor razonable menos los costes de venta y el valor en uso. Cuando el valor contable es mayor que el importe recuperable se produce una pérdida por deterioro. El valor en uso es el valor actual de los flujos de efectivo futuros esperados, utilizando tipos de interés de mercado sin riesgo, ajustados por los riesgos específicos asociados al activo. Para aquellos activos que no generan flujos de efectivo independientes de los derivados de otros activos o grupos de activos, el importe recuperable se determina para las unidades generadoras de efectivo a las que pertenecen dichos activos.

Las correcciones valorativas por deterioro y su reversión se contabilizan en la cuenta de pérdidas y ganancias. Las correcciones valorativas por deterioro se revierten cuando las circunstancias que las motivaron dejan de existir. La




Narriaduraren itzulketaren muga aktiboaren kontabilitate-balioa da, aldeaz aurretik dagokion balio-narriadura aitortu izan ez balitz agertuko litzatekeena.

Hiru urtetik behin, sozietateak merkatu-konparagarrien azterketa bat egiten du, bere ezaugarrien antzekoak diren eta Arabako Parke Teknologikoan dauden higiezin aktiboak buruzkoa. Azken azterketa 2023ko ekitaldian egin zen. Horren eta 2024ko ekitaldian aktibo horien bilakaeraren arabera, sozietateak uste du ez dagoela inongo narriadurarik 2024ko abenduaren 31n

4.4 Errentamenduak

Errentamenduak finantza-errentamendu gisa sailkatzen dira, baldin eta errentamendu horien baldintzetatik ondorioztatzen bada kontuaren xede den aktiboaren jabetzari detxezkion arriskuak eta onurak funtsean errentariari transferitzen zaizkiolako. Gainerako errentamenduak errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira (6.1 oharra).

Sozietateak errentatzaile gisa jarduten duenean, errentamendu operatiboko akordioetatik eratorritako diru-sarrerak eta gastuak, sortzen diren ekitaldian zordunduko dira galdu-irabazien kontuan.

Era berean, errentan hartutako ondasuna eskuratzeko kostua izaeraren arabera aurkezten da balantzean, zuzenean egotz daitezkeen kontratuaren kostuen zenbatekoaz gehituta. Kostu horiek gastu gisa aitortzen dira kontratuaren epean, errentamenduaren diru-sarrerak aitortzeko erabilitako irizpide bera aplikatuta.

Sozietatea errentaria denean, errentamendu operatiboko akordioetatik eratorritako gastuak galdu-irabazien kontura kargatzen dira sortzen diren ekitaldian. Errentamendu operatibo bat kontratatzean egin daitekeen edozein kobrantza edo ordainketa aldeaz aurreko kobrantza edo ordainketa gisa tratatuko da, eta emaitzei egotziko zaie errentamenduaren aldian zehar, errentatutako aktiboaren mizkinak laga edo jaso ahal.

reversión del deterioro tiene como límite el valor contable del activo que figuraría si no se hubiera reconocido previamente el correspondiente deterioro del valor.

Cada 3 años, la sociedad realiza un estudio de comparables de mercado de activos inmobiliarios de similares características al suyo propio y que también se encuentran dentro del Parque Tecnológico de Álava. El último estudio realizado fue en el ejercicio 2023. En base al mismo y a la evolución de dichos activos inmobiliarios durante el ejercicio 2024, la sociedad estima que no existe deterioro alguno a 31 de diciembre de 2024.

4.4 Arrendamientos

Los arrendamientos se clasifican como arrendamientos financieros siempre que de las condiciones de los mismos se deduzca que se transfieren al arrendatario sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a la propiedad del activo objeto del contrato. Los demás arrendamientos se clasifican como arrendamientos operativos (Nota 6.1).

Cuando la Sociedad actúa como arrendador, los ingresos y gastos derivados de los acuerdos de arrendamiento operativo se cargan a la cuenta de pérdidas y ganancias en el ejercicio en que se devengan.

Asimismo, el coste de adquisición del bien arrendado se presenta en el balance conforme a su naturaleza, incrementado por el importe de los costes del contrato directamente imputables, los cuales se reconocen como gasto en el plazo del contrato, aplicando el mismo criterio utilizado para el reconocimiento de los ingresos del arrendamiento.

Cuando la Sociedad es el arrendatario, los gastos derivados de los acuerdos de arrendamiento operativo se cargan a la cuenta de pérdidas y ganancias en el ejercicio en que se devengan. Cualquier cobro o pago que pudiera realizarse al contratar un arrendamiento operativo, se tratará como un cobro o pago anticipado que se imputará a resultados a lo largo del periodo del arrendamiento, a medida que se cedan o reciban los beneficios del activo arrendado.

4.5 Tresna finantzarioak

4.5.1 Aktibo finantzarioak

Sailkapena-

Sozietatearen finantza-aktiboak honako hauek dira:

Kostu amortizatuko finantza-aktiboak

Kategoria honetan sartzen dira finantza-aktiboak, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartutakoak ere, zeinetarako Sozietateak inbertsioari eusten dion kontratua gauzatzetik eratorritako diru-fluxuak jasotzeko helburuarekin, printzipalaren kobrantzak eta ordaintzeko dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak soilik direnak. Oro har, kategoria honetan sartzen dira:

- 1.1. Mekataritza-eragiketengatiko kredituak: kobrantza geroratuko trafiko-eragiketengatik ondasunak saltzean edo zerbitzuak ematean sortutakoak, eta
- 1.2. Merkataritzakoak ez diren eragiketengatiko kredituak: sozietateak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik datoz, eta zenbateko jakin edo modu zehatzeko kobrantzak dituzte.

Hasierako balorazioa-

Finantza-aktiboak, oro har, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioan erregistratzen dira hasieran, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak gehituta. Hala ere, galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioan erregistratutako aktiboak zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak.

Geroko balorazioa-

Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak erregistratzeko, balorazio-irizpide hori aplikatuko da eta galdu-irabazien kontura egotziko dira sortutako interesak, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Bereziki, eta zordun komertzialei eta kobratu beharreko beste kontu batzuei buruzko balio-zuzenketei

4.5 Instrumentos financieros

4.5.1 Activos financieros

Clasificación-

Los activos financieros que posee la Sociedad son:

Activos financieros a coste amortizado

Se incluyen en esta categoría activos financieros, incluso los admitidos a negociación en un mercado organizado, para los que la Sociedad mantiene la inversión con el objetivo de percibir los flujos de efectivo derivados de la ejecución del contrato, y las condiciones contractuales del activo dan lugar, en fechas especificadas, a flujos de efectivo que son únicamente cobros de principal e intereses sobre el importe del principal pendiente. Con carácter general, se incluyen en esta categoría:

- 1.1. Créditos por operaciones comerciales: originados en la venta de bienes o en la prestación de servicios por operaciones de tráfico con cobro aplazado, y
- 1.2. Créditos por operaciones no comerciales: proceden de operaciones de préstamo o crédito concedidos por la Sociedad cuyos cobros son de cuantía determinada o determinable.

Valoración inicial-

Los activos financieros se registran, en términos generales, inicialmente al valor razonable de la contraprestación entregada más los costes de la transacción que sean directamente atribuibles. No obstante, se reconocerán en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio los costes de transacción directamente atribuibles a los activos registrados a valor razonable con cambios en la cuenta de pérdidas y ganancias.

Valoración posterior -

Los activos financieros a coste amortizado se registrarán aplicando dicho criterio de valoración imputando a la cuenta de pérdidas y ganancias los intereses devengados aplicando el método del tipo de interés efectivo.



dagokienez, Sozietateak balio-zuzenketak kalkulatzeko erabiltzen duen irizpidea da galdu-irabazien kontuaren kargura erregistratzea narriaduraren zenbateko zenbatetsia, atzeratutako ordainketagatik, kaudimengabeziagatik, berandutzeagatik edo beste arrazoi batzuegatik egoera irregularrean dauden kontu komertzialetan, horien kobragarritasunaren azterketa indibidualaren bidez, erantsitako balantzean "Bezeroak salmentagatik eta zerbitzu-prestazioengatik" kontuaren zenbatekoa murriztuz.

Sozietateak baja ematen die aktibo finantzarioei dagokion aktibo finantzarioaren diru-fluxuen gainerako eskubideak amaitzen direnean edo laga direnean, eta funtsean transferitu dira bere jabetzari datxekion arriskuak eta mozkinak, hala nola aktiboen salmenta irmoetan, arrazoizko balioan berrerosteko ituna duten aktibo finantzarioen salmentetan edo enpresa lagatzaileak mendeko finantzaketarik atxikitzen ez duen edo inolako bermerik ematen ez duen edo bestelako arriskuren bat bere gain hartzen ez duen aktibo finantzarioen titulizazioetan.

Aitzitik, Sozietateak ez die baja ematen aktibo finantzarioei, eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko bereko pasibo finantzarioa aitortzen du, bere jabetzari datxekion arriskuak eta mozkinak funtsean atxikitzen diren aktibo finantzarioen lagapenetan, hala nola efektuen deskontua, berrerosteko itunak dituzten aktibo finantzarioen salmentak prezio finko batean edo salmenta-prezioan gehi interes bat, eta aktibo finantzarioen titulazioak, non enpresa lagatzaileak espero diren galera guztiak funtsean xurgatzen dituzten mendeko finantzazioak edo bestelako bermeak atxikitzen dituen.

Finantza-aktiboen balio-narriadura-

Ekitaldi-itxieran behintzat, Sozietateak narriadura-test bat egiten du arrazoizko balioan erregistratuta ez dauden finantza-aktiboetarako. Narriadura-ebidentzia objektibotzat hartzen da aktibo finantzarioaren balio berreskuragarria kontabilitate-balioa baino txikiagoa bada. Gertatzen denean, narriadura horren erregistroa galdu-irabazien kontuan erregistratzen da.

Aktibo finantzarioen narriaduraren ebidentzia objektibo bat dago, kobratzeko kontuak eta kredituak bezala ulertuta, hasierako aintzatespenaren ondoren

En particular, y respecto a las correcciones valorativas relativas a los deudores comerciales y otras cuentas a cobrar, el criterio utilizado por la Sociedad para calcular las correspondientes correcciones valorativas consiste en registrar con cargo a la cuenta de pérdidas y ganancias el importe del deterioro estimado en las cuentas comerciales que están en situación irregular por pago atrasado, insolvencia, mora u otras causas, mediante el análisis individual de la cobrabilidad de las mismas, minorando el importe de la cuenta "Clientes por ventas y prestaciones de servicios" del balance adjunto.

La Sociedad da de baja los activos financieros cuando expiran o se han cedido los derechos sobre los flujos de efectivo del correspondiente activo financiero y se han transferido sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a su propiedad, tales como en ventas en firme de activos, las ventas de activos financieros con pacto de recompra por su valor razonable o las titulizaciones de activos financieros en las que la empresa cedente no retiene financiaciones subordinadas ni concede ningún tipo de garantía o asume algún otro tipo de riesgo.

Por el contrario, la Sociedad no da de baja los activos financieros, y reconoce un pasivo financiero por un importe igual a la contraprestación recibida, en las cesiones de activos financieros en las que se retenga sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a su propiedad, tales como el descuento de efectos, las ventas de activos financieros con pactos de recompra a un precio fijo o al precio de venta más un interés y las titulizaciones de activos financieros en las que la empresa cedente retiene financiaciones subordinadas u otro tipo de garantías que absorben sustancialmente todas las pérdidas esperadas.

Deterioro del valor de los activos financieros-

Al menos al cierre del ejercicio la Sociedad realiza un test de deterioro para los activos financieros que no están registrados a valor razonable. Se considera que existe evidencia objetiva de deterioro si el valor recuperable del activo financiero es inferior a su valor en libros. Cuando se produce, el registro de este deterioro se registra en la cuenta de pérdidas y ganancias.

Existe una evidencia objetiva de deterioro en los activos financieros, entendidos como las cuentas a cobrar y los créditos, cuando después de su reconocimiento inicial

etorkizuneko zenbatetsitako ditu-fluxuetan eragin negatiboa duen gertaera bat gertatzen denean.

Sozietateak aktibo narriatutzat (zalantzazko aktibotzat) jotzen ditu narriadura-ebidentzia objektiboak dituzten finantza-aktiboak, batez ere ordaindu gabeak, ez-betetzeak, birfinantzaketak eta hitzartutako etorkizuneko fluxu guztiak ez berreskuratzeko edo kobratzeko atzerapena gertatzeko aukera agerian uzten duten datuak izateari buruzkoak (7. oharra).

Amortizatutako kostuan balioztatutako finantza-aktiboen kasuan, narriaduragatiko galeren zenbatekoa haien liburu-balioaren eta sortuko diren etorkizuneko diru fluxuen balio eguneratuaren arteko aldea da, aktiboaren hasierako kontabilizazioan zegoen interes-tasa efektiboan deskontatuta. Interes-tasa aldakorreko aktibo finantzarioetarako, interes-tasa efektiboa erabiltzen da urteko kontuen itxiera-datan.

Narriaduraren itzulketa galdu-irabazien kontuan egindako sarrera gisa kontabilizatzen da, eta balio-narriadura erregistratu izan ez balitz itzulketa-datan erregistratuta zegoen aktibo finantzarioaren kontabilitate-balioa du muga.

Aktibo finantzarioetatik jasotako interesak-

Eskuratu ondoren sortutako aktibo finantzarioen interesak sarrera gisa kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan. Interesak interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz aitortu behar dira.

Ondorio horietarako, finantza-aktiboen hasierako balorazioan modu independentean erregistratzen dira, epemugaren arabera, une horretan sortu eta mugaeguneratu ez diren interes esplizituen zenbatekoan. Interes esplizitutzat hartzen dira finantza-tresnaren kontratuzko interes-tasa aplikatuta lortzen direnak.

4.5.2 Pasibo finantzarioak

Pasibo finantzarioak dira sozietateak dituen zorrak eta ordaindu beharreko partidak, enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasunak eta zerbitzuak erostean sortutakoak, edo jatorri komertziala izan ez arren finantza-tresna deribatutzat hartu ezin direnak.

ocurre un evento que supone un impacto negativo en sus flujos de efectivo estimados futuros.

La Sociedad considera como activos deteriorados (activos dudosos) aquellos activos financieros para los que existen evidencias objetivas de deterioro, que hacen referencia fundamentalmente a la existencia de impagados, incumplimientos, refinanciaciones y a la existencia de datos que evidencien la posibilidad de no recuperar la totalidad de los flujos futuros pactados o que se produzca un retraso en su cobro (Nota 7).

En el caso de los activos financieros valorados a su coste amortizado, el importe de las pérdidas por deterioro es igual a la diferencia entre su valor en libros y el valor actual de los flujos de efectivo futuros que se estima van a generar, descontados al tipo de interés efectivo existente en el momento del reconocimiento inicial del activo. Para los activos financieros a tipo de interés variable se utiliza el tipo de interés efectivo a la fecha de cierre de las cuentas anuales.

La reversión del deterioro se reconoce como un ingreso en la cuenta de pérdidas y ganancias, y tiene como límite el valor en libros del activo financiero que estaba registrado en la fecha de reversión si no se hubiese registrado el deterioro de valor.

Intereses recibidos de activos financieros-

Los intereses de activos financieros devengados con posterioridad al momento de la adquisición se reconocen como ingresos en la cuenta de pérdidas y ganancias. Los intereses deben reconocerse utilizando el método del tipo de interés efectivo.

A estos efectos, en la valoración inicial de los activos financieros se registran de forma independiente, atendiendo a su vencimiento, el importe de los intereses explícitos devengados y no vencidos en dicho momento. Se entiende por intereses explícitos aquellos que se obtienen de aplicar el tipo de interés contractual del instrumento financiero.

4.5.2 Pasivos financieros

Son pasivos financieros aquellos débitos y partidas a pagar que tiene la Sociedad y que se han originado en la compra de bienes y servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o también aquellos que sin tener un origen comercial, no pueden ser considerados como instrumentos financieros derivados.

Zorrak eta ordaindu beharreko partidak, hasieran, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioan balioesten dira, zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuekin dötuta. Ondoren, pasibo horiek amortizatutako kostuaren arabera baloratzen dira. Aurrekoa gorabehera, urtebete baino gutxiagoko epemuga duten zorrak, hasieran balio nominalaren arabera balioztatzen direnak, zenbateko horren arabera balioesten jarraitzen da.

Hala ere, urtebetetik beherako epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketengatik zorrak eta hirugarrenek partaidetzen gainean eskatutako ordainketak (horien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero da) balio nominalaren arabera balioztatzen dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Arrazoizko balioaren eta errentamendu operatiboengatik fidantzetatik jasotako zenbatekoaren arteko aldea errentamenduaren kobrantza aurreratutzat hartzen da, eta galdu-irabazien kontuari egozten zaio errentamenduaren aldian. Fidantzen arrazoizko balioa kalkulatzeko, hitzartutako gutxieneko kontratu-epea hartzen da geldikin-alditzat.

Pasibo finantzarioei baja ematen die sozietateak, pasibo horiek sortu dituzten betebeharrak azkentzen direnean.

Los débitos y partidas a pagar se valoran inicialmente al valor razonable de la contraprestación recibida, ajustada por los costes de la transacción directamente atribuibles. Con posterioridad, dichos pasivos se valoran de acuerdo con su coste amortizado. No obstante lo anterior, los débitos con vencimiento no superior a un año que se valoran inicialmente por su valor nominal, continúan valorándose por dicho importe.

No obstante, los débitos por operaciones comerciales con vencimiento no superior a un año y que no tengan un tipo de interés contractual, así como los desembolsos exigidos por terceros sobre participaciones, cuyo importe se espera pagar en el corto plazo, se valoran por su valor nominal, cuando el efecto de no actualizar los flujos de efectivo no es significativo.

La diferencia entre el valor razonable y el importe recibido de las fianzas por arrendamientos operativos se considera un cobro anticipado por el arrendamiento y se imputa a la cuenta de pérdidas y ganancias durante el periodo del arrendamiento. Para el cálculo del valor razonable de las fianzas se toma como periodo remanente el plazo contractual mínimo comprometido.

La Sociedad da de baja los pasivos financieros cuando se extinguen las obligaciones que los han generado.

4.6 Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk

Epigrafe honetan sartzen dira kutxako eskudirua eta baldintza haiek betetzen dituzten bankuko kontu korronteak:

- Eskudiru bihur daitezke.
- Eskuratzeko unean, mugaeguna ez zen hiru hilabetetik gorakoa.
- Ez dute balio-aldaketaren arrisku esanguratsurik.
- Sozietatearen diruzaintzako kudeaketa-politika normalaren parte dira.

4.6 Efectivo y otros activos líquidos equivalentes

Este epígrafe incluye el efectivo en caja y las cuentas corrientes bancarias que cumplen con los siguientes requisitos:

- Son convertibles en efectivo.
- En el momento de su adquisición su vencimiento no era superior a tres meses.
- No están sujetos a un riesgo significativo de cambio de valor.
- Forman parte de la política de gestión normal de tesorería de la Sociedad.

4.7 Hornidurak eta kontingentziak

Sozietatearen administratzaileek, urteko kontuak egitean, honako hauek bereizten dituzte:

- Hornidurak: iraganeko gertaeren ondoriozko egungo obligazioak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak. Horiek ezerezteak, ziurrenik, baliabideak ateratzea eragingo du, baina zenbatekoa eta/edo ezeztapen-unea zehaztugabeak izango dira.
- Pasibo kontingenteak: iraganeko gertakarien ondorioz sor daitezkeen obligazioak, etorkizunean eman ahal izateko sozietatearen borondatearekin zerikusirik ez duten etorkizuneko gertaera bat edo gehiago eman behar badira edo ez.

Obligazioari erantzun behar izateko probabilitatea kontrakoa baino handiagoa dela uste den hornidura guztiak jasotzen dituzte urteko kontuek. Pasibo kontingenteak ez dira urteko kontuetan jasotzen, baizik eta horien berri ematen da memoriaren oharretan, urrunekotzat hartzen ez diren heinean.

Hornidurak baloratzeko, obligazioa ezeztatzeko edo transferitzeko behar den zenbatespenik onenaren balio eguneratua hartzen da kontuan, gertakariari eta haren ondorioei buruz eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta, eta hornidura horiek eguneratzearen ondorioz sortzen diren doikuntzak finantza-gastu gisa erregistratzen dira, sortzen den heinean.

Obligazioa likidatzen den unean hirugarren batengandik jaso beharreko konpentsazioa aktibo gisa erregistratuko da, itzulketa hori jasoko dela zalantzarik ez badago, saldu eta arriskuaren zati bat kanporatzeko legezko lotura bat badago eta horren arabera sozietatea ez badago erantzutera behartuta. Egoera horretan, konpentsazioa kontuan hartuko da, hala badagokio, dagokion hornidura agertzeko erabiliko den zenbatekoa kalkulatzeko.

Sozietatearen administratzaileek uste dute ez dagoela pasibo kontingente esanguratsurik sozietatearentzat 2024ko abenduaren 31n.

4.7 Provisiones y contingencias

Los Administradores de la Sociedad en la formulación de las cuentas anuales diferencian entre:

- Provisiones: saldos acreedores que cubren obligaciones actuales derivadas de sucesos pasados, cuya cancelación es probable que origine una salida de recursos, pero que resultan indeterminados en cuanto a su importe y/o momento de cancelación.
- Pasivos contingentes: obligaciones posibles surgidas como consecuencia de sucesos pasados, cuya materialización futura está condicionada a que ocurra, o no, uno o más eventos futuros independientes de la voluntad de la Sociedad.

Las cuentas anuales recogen todas las provisiones con respecto a las cuales se estima que la probabilidad de que se tenga que atender la obligación es mayor que de lo contrario. Los pasivos contingentes no se reconocen en las cuentas anuales, sino que se informa sobre los mismos en las notas de la memoria, en la medida en que no sean considerados como remotos.

Las provisiones se valoran por el valor actual de la mejor estimación posible del importe necesario para cancelar o transferir la obligación, teniendo en cuenta la información disponible sobre el suceso y sus consecuencias, y registrándose los ajustes que surjan por la actualización de dichas provisiones como un gasto financiero conforme se va devengando.

La compensación a recibir de un tercero en el momento de liquidar la obligación, siempre que no existan dudas de que dicho reembolso será percibido, se registra como activo, excepto en el caso de que exista un vínculo legal por el que se haya exteriorizado parte del riesgo, y en virtud del cual la Sociedad no esté obligada a responder; en esta situación, la compensación se tendrá en cuenta para estimar el importe por el que, en su caso, figurará la correspondiente provisión.

Los Administradores de la Sociedad estiman que no existen pasivos contingentes significativos para la Sociedad al 31 de diciembre de 2024.

4.8 Konpromisoak pentsioengatik eta langileekiko beste ordainsari batzuegatik

2004ko uztailaren 27an, Itzarri-EPSV borondatezko aurreikuspeneko erakundea eratzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak. Erakunde horren helburu soziala da Euskal Administrazioa langileek egiaztatutako prestazio publikoak osatzea, erretiroa, ezintasun iraunkorra, heriotza edo iraupen luzeko langabezia gertatzen direnean. Alde horretatik, Itzarri-EPSVren kudeaketa Batzordeak sozietatea EPSV horri atxikitzea erabaki zuen.

2024ko ekitaldian, sozietateak 8.273 euroko ekarpena egin du kontzeptu horrengatik (12.3. oharra).

4.9 Mozkinen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zergaren gastuak edo sarrerak barne hartzen ditu zerga arruntaren gastuari edo sarrerari dagokion zatia eta zerga geroratuaren gastuari edo sarrerari dagokion zatia.

Zerga arrunta sozietateak ekitaldi bati dagozkion mozkinaren gaineko zergaren likidazio fiskalen ondorioz ordaintzen duen zenbatekoa da. Zergaren kuota kenkariak eta bestelako abantaila fiskalek, atxikipenak eta konturako ordainketak alde batera utzita, bai eta aurreko ekitaldietako galera fiskal konpentsagarriak ere, zerga arruntaren zenbateko txikiagoa eragiten dute. Zerga geroratuaren ondoriozko gastua edo sarrera zerga geroratuaren ondoriozko aktiboen eta pasiboen aintzatespenarekin eta balio gabetzearekin bat dator. Horien barruan sartzen dira aktiboen eta pasiboen liburutako zenbatekoen eta horien balio fiskalaren arteko diferentzietatik eratorritako zenbateko ordaingarri edo berreskuragarritzat jotzen diren denbora-diferentziak, bai eta konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak eta fiskalki aplikatu gabeko zerga-kenkariengatik kredituak ere. Zenbateko horiek erregistratzeko, berreskuratu edo likidatzea espero den karga-tasa aplikatzen zaio dagokion denborazko aldeari edo kredituari.

Zerga geroratuen ondoriozko pasiboak aitortzen dira, denborazko diferentzia zergagarri guztietan, merkataritza-funtsen edo beste aktibo eta pasibo batzuen hasierako aintzatespenetik eratorritakoak izan ezik, eragiketa horrek ez baitio ez emaitza fiskalari ez kontabilitate-emaitzari eragiten, eta ez baita negozio-konbinazio bat.

4.8 Compromisos por pensiones y otras retribuciones al personal

El 27 de julio de 2004, el Gobierno Vasco acordó la constitución de la Entidad de Previsión Voluntaria Itzarri-EPSV, que tiene por objeto social complementar las prestaciones públicas acreditadas por los trabajadores de la Administración Vasca, cuando se produzcan las contingencias de jubilación, incapacidad permanente, fallecimiento o desempleo de larga duración. En este sentido, la Comisión Gestora de Itzarri-EPSV acordó la adhesión de la Sociedad a dicha EPSV.

Durante el ejercicio 2024, la Sociedad ha realizado una aportación por este concepto de 8.273 euros (Nota 12.3.).

4.9 Impuesto sobre beneficios

El gasto o ingreso por impuesto sobre beneficios comprende la parte relativa al gasto o ingreso por el impuesto corriente y la parte correspondiente al gasto o ingreso por impuesto diferido.

El impuesto corriente es la cantidad que la Sociedad satisface como consecuencia de las liquidaciones fiscales del impuesto sobre el beneficio relativas a un ejercicio. Las deducciones y otras ventajas fiscales en la cuota del impuesto, excluidas las retenciones y pagos a cuenta, así como las pérdidas fiscales compensables de ejercicios anteriores y aplicadas efectivamente en éste, dan lugar a un menor importe del impuesto corriente. El gasto o el ingreso por impuesto diferido se corresponden con el reconocimiento y la cancelación de los activos y pasivos por impuesto diferido. Estos incluyen las diferencias temporarias que se identifican como aquellos importes que se prevén pagaderos o recuperables derivados de las diferencias entre los importes en libros de los activos y pasivos y su valor fiscal, así como las bases imponibles negativas pendientes de compensación y los créditos por deducciones fiscales no aplicadas fiscalmente. Dichos importes se registran aplicando a la diferencia temporaria o crédito que corresponda el tipo de gravamen al que se espera recuperarlos o liquidarlos.

Se reconocen pasivos por impuesto diferido para todas las diferencias temporarias imponibles, excepto aquellas derivadas del reconocimiento inicial de fondos de comercio o de otros activos y pasivos en una operación que no afecta ni al resultado fiscal ni al resultado contable y no es una combinación de negocios.

Zerga geroratuagatik aktiboak, berriz, sozietateak etorkizunean irabazi fiskalak izango dituela eta hurrengo hamar ekitaldietan horien aurka egin ahal izango duela uste den neurrian baino ez dira aitortzen.

Zerga geroratuaren aktiboak eta pasiboak ere ondare garbiko kontrapartidarekin kontabilizatzen dira, ondare-kontuetan zordunketa edo abonu zuzenekin egindako eragiketengatik sortuak.

Kontabilitate-itxiera bakoitzean, erregistratutako zerga geroratuaren aktiboak berriz aztertzen dira, eta dagozkien zuzenketak egiten zaizkie, etorkizunean berreskuratzeari buruzko zalantzak dauden heinean. Era berean, itxiera bakoitzean balantzean erregistratu ez diren zerga geroratuaren aktiboak ebaluatzen dira, eta horiek aintzatetsi egiten dira, etorkizuneko onura fiskalekin berreskuratzeak aukera dagoen neurrian. Sozietateak ez du 2024ko ekitaldian eta aurreko ekitaldietan sortutako zerga-oinarri negatiboei dagokien kreditu fiskala erregistratu, ezta sortutako kenkariei dagokiena ere (11.5 oharra).

4.10 Aktibo eta pasiboen sailkapena korrontearen eta ez-korrontearen artean

Aktiboak eta pasiboak balantzean aurkezten dira, korronteen eta ez-korronteen artean sailkatuta. Ondorio horietarako, aktiboak eta pasiboak korronte gisa sailkatzen dira sozietatearen ustiapen-ziklo normalari lotuta daudenean eta ziklo horretan zehar saltzea, kontsumitzea, egitea edo likidatzea espero denean.

4.11 Diru-sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapen-irizpidearen arabera egozten dira, hau da, horiek ordezkutzen dituzten ondasun eta zerbitzuen korronte erreala gertatzen denean, horien ondoriozko moneta- edo finantza-korrontea gertatzen den unea edozein dela ere. Sarrera horiek jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioan balioesten dira, deskontuak eta zergak kenduta.

Diru-sarrerak zerbitzuak emateagatik (12.1 oharra)

Sozietateak transakzioetik eratorritako etekinak edo etekin ekonomikoak jasotzeko probabilitatea dagoenean aitortzen dira diru-sarrerak, eta egindako edo egin beharreko diru-sarreraren eta kostuen zenbatekoa fidagarritasunez balora daiteke. Jasotako edo jaso beharreko kontrapartidaren

Por su parte, los activos por impuesto diferido sólo se reconocen en la medida en que se considere probable que la Sociedad vaya a disponer de ganancias fiscales futuras contra las que poder hacerlos efectivos en los próximos diez ejercicios.

Los activos y pasivos por impuesto diferido, originados por operaciones con cargos o abonos directos en cuentas de patrimonio, se contabilizan también con contrapartida en patrimonio neto.

En cada cierre contable se reconsideran los activos por impuesto diferido registrados, efectuándose las oportunas correcciones a los mismos en la medida en que existan dudas sobre su recuperación futura. Asimismo, en cada cierre se evalúan los activos por impuesto diferido no registrados en balance y éstos son objeto de reconocimiento en la medida en que pase a ser probable su recuperación con beneficios fiscales futuros. La Sociedad no ha registrado el crédito fiscal correspondiente a las bases imponibles negativas generadas en el ejercicio 2024 y en ejercicios anteriores, ni el correspondiente a las deducciones generadas (Nota 11.5).

4.10 Clasificación de activos y pasivos entre corriente y no corriente

Los activos y pasivos se presentan en el balance clasificados entre corrientes y no corrientes. A estos efectos, los activos y pasivos se clasifican como corrientes cuando están vinculados al ciclo normal de explotación de la Sociedad y se esperan vender, consumir, realizar o liquidar en el transcurso del mismo.

4.11 Ingresos y gastos

Los ingresos y gastos se imputan en función del criterio de devengo, es decir, cuando se produce la corriente real de bienes y servicios que los mismos representan, con independencia del momento en que se produzca la corriente monetaria o financiera derivada de ellos. Dichos ingresos se valoran por el valor razonable de la contraprestación recibida, deducidos descuentos e impuestos.

Ingresos por prestaciones de servicios (Nota 12.1)

Los ingresos se reconocen cuando es probable que la Sociedad reciba los beneficios o rendimientos económicos derivados de la transacción, y el importe de los ingresos y de los costes, incurridos o a incurrir, pueden valorarse con fiabilidad. Los ingresos se valoran al valor razonable de la



arrazoizko balioan balioesten dira sarrerak, eta deskontuak, prezioan izandako beherapenak eta sozietateak eman ditzakeen antzeko partidak kentzen dira, bai eta, hala badagokio, kredituen nominalari erantsitako interesak ere. Eragiketak zergapetzen dituzten eta hirugarrenei jasanaraz dakizkiekeen zeharkako zergak ez dira diru-sarreraren zati.

4.12 Ingurumen-izaerako ondare-elementuak

Ingurumen-aktiboak dira sozietatearen jardueran modu iraunkorrean erabiltzen diren ondasunak, baldin eta haien helburu nagusia ingurumen-inpaktua minimizatzea eta ingurumena babestea eta hobetzea bada, etorkizuneko kutsadura murriztea edo ezabatzea barne.

Ibilgetuan egindako inbertsioetat hartuko dira sozietatearen jardura normaltasunez garatzeak ingurumenean eragin ditzakeen inpaktuak ezabatzeko, mugatzeko edo kontrolatzeko helburua duten sistemak, ekipoak eta instalazioak eskuratzeko kostuak.

Sozietatearen jarduerak, bere izaeragatik, ez du ingurumen-inpaktu esanguratsurik.

4.13 Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak kontabilizatzeko. Sozietateak honako irizpide hauei jarraitzen die:

- a) Itzuli beharrik gabeko kapitaleko dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak: emandako zenbatekoaren edo ondasunaren arazoizko balioan balioesten dira, monetarioak diren edo ez kontuan hartuta, eta emaitzetara egozten dira, diruz lagundutako elementuetarako aldiari egindako amortizaziorako zuzkiduraren proportzioan edo, hala badagokio, besterentzen direnean edo narriaduragatik balio-zuzenketa egiten denean, salbu eta bazkide edo jabeengandik jasotakoak, horiek zuzenean erregistratzen baitira funts propioetan, eta ez baitute inolako sarrerarik osatzen interes orokorreko jardura espezifikoak ez finantzatzeagatik eta eragiketa-defizita estaltzeko ekarpenetat hartzen direlako.
- b) Dirulaguntza itzulgarriak: itzulgarriak diren bitartean pasibo gisa kontabilizatzen dira. Zero interes-tasaren aurrerakin itzulgarriak arazoizko

contrapartida recibida o por recibir, deduciendo los descuentos, rebajas en el precio y otras partidas similares que la Sociedad pueda conceder, así como, en su caso, los intereses incorporados al nominal de los créditos. Los impuestos indirectos que graven las operaciones y que son repercutibles a terceros no forman parte de los ingresos.

4.12 Elementos patrimoniales de naturaleza medioambiental

Se consideran activos de naturaleza medioambiental los bienes que son utilizados de forma duradera en la actividad de la Sociedad, cuya finalidad principal es la minimización del impacto medioambiental y la protección y mejora del medioambiente, incluyendo la reducción o eliminación de la contaminación futura.

Los costes incurridos en la adquisición de sistemas, equipos e instalaciones cuyo objeto sea la eliminación, limitación o el control de los posibles impactos que pudiera ocasionar el normal desarrollo de la actividad de la Sociedad sobre el medioambiente, se consideran inversiones en inmovilizado.

La actividad de la Sociedad, por su naturaleza, no tiene un impacto medioambiental significativo.

4.13 Subvenciones, donaciones y legados

Para la contabilización de las subvenciones, donaciones y legados recibidos, la Sociedad sigue los criterios siguientes:

- a) Subvenciones, donaciones y legados de capital no reintegrables: se valoran por el valor razonable del importe o el bien concedido, en función de si son de carácter monetario o no, y se imputan a resultados en proporción a la dotación a la amortización efectuada en el periodo para los elementos subvencionados o, en su caso, cuando se produzca su enajenación o corrección valorativa por deterioro, con excepción de las recibidas de socios o propietarios que se registran directamente en los fondos propios y no constituyen ingreso alguno por no financiación actividades específicas de interés general y considerarse aportaciones en cobertura de déficit de operaciones.
- b) Subvenciones de carácter reintegrable: mientras tienen el carácter de reintegrables se contabilizan como pasivos. Aquellos anticipos reintegrables de

balioan balioztatzen dira, eta galdu-irabazien kontuan egozten dira dirulaguntza gisa finantzatutako ondasunaren amortizazioaren arabeko interes inplizituak (ustiapenekoak edo kapitalekoak, lotutako inbertsioen arabera), eta geroko ordainketak urtero eguneratzen dira emaitzen kargura.

- c) Ustiapeneko dirulaguntzak: ematen diren unean ordaintzen dira emaitzetara, finantzatutako gastuen sortzapen-alditik oso desberdina ez bada. Jasotako dirulaguntzak Eusko Jaurlaritzak eskatuta, enpresa-jarduera sustatzearekin lotutako interes publikoko edo orokorreko jarduera garatzeko egindako eragiketa eta programak estaltzeko lortutako finantzaketari dagozkio (1. oharra), eta emandako transferentzien helburuak zehazten dituzten akordioen pean (12.2 oharra).

4.14 Eragiketak lotutako alderdiekin

Sozietateak merkatuko baloreekin egiten ditu eragiketa guztiak. Horrez gain, sozietatearen administratzaileen eta aholkularien iritziz, transferentzia-prezioek behar bezala eusten diete, eta, beraz, uste dute alderdi horrengatik ez dagoela arrisku esanguratsurik etorkizunean pasibo garrantzitsuak erator daitezkeenik (13. oharra).

4.15 Kalte-ordainak kaleratzeagatik

Indarrean dagoen legediaren arabera, sozietateak kalte-ordainak ordaindu beharko dizkie baldintza jakin batzuetan lan-harremanak bertan behera uzten dituzten langileei. Beraz, arrazoizko kuantifikazioa izan dezaketen kaleratzeagatik kalte-ordainak gastu gisa erregistratzen dira kaleratzearen erabakia hartzen den ekitaldian. Erantsitako urteko kontuetan ez da kontzeptu horrengatik hornidurarik erregistratu, ez baitago horrelako egoerarik aurreikusita.

tipo de interés cero, se valoran por su valor razonable, imputándose en la cuenta de pérdidas y ganancias los intereses implícitos en función de la amortización del bien financiado como subvenciones (de explotación o de capital según las inversiones afectas), actualizándose los pagos futuros anualmente con cargo a resultados.

- c) Subvenciones de explotación: se abonan a resultados en el momento en que se conceden, que no difiere sustancialmente del periodo de devengo de los gastos financiados. Las subvenciones recibidas hacen referencia a la financiación obtenida para la cobertura de distintas operaciones y programas realizados a instancia del Gobierno Vasco, en cobertura del desarrollo de la actividad de interés público o general asociada a la promoción de la actividad empresarial (Nota 1), y bajo acuerdos que especifican las finalidades de las transferencias concedidas (Nota 12.2).

4.14 Operaciones con partes vinculadas

La Sociedad realiza todas sus operaciones con vinculadas a valores de mercado. Adicionalmente, en opinión de los Administradores de la Sociedad y de sus asesores, los precios de transferencia se encuentran adecuadamente soportados por lo que consideran que no existen riesgos significativos por este aspecto de los que puedan derivarse pasivos de consideración en el futuro (Nota 13).

4.15 Indemnizaciones por despido

De acuerdo con la legislación vigente, la Sociedad está obligada al pago de indemnizaciones a aquellos empleados con los que, bajo determinadas condiciones, rescinda sus relaciones laborales. Por tanto, las indemnizaciones por despido susceptibles de cuantificación razonable se registran como gasto en el ejercicio en el que se adopta la decisión del despido. En las cuentas anuales adjuntas no se ha registrado provisión alguna por este concepto, ya que no están previstas situaciones de esta naturaleza.

4.16 Eskudiru-fluxuaren egoera

Zeharkako metodoaren arabera prestatutako diru-fluxuen egoera-orrian, honako adierazpen hauek erabiltzen dira:

- Diru-fluxuak. Eskudiruaren eta horien baliokideen sarrerak eta irteerak; likidezia handiko epe laburreko inbertsioak dira, balioa aldatzeko arrisku handirik ez dutenak.
- Ustiapen-jarduerak. Sozietatearen ohiko jarduerak, bai eta inbertsio edo finantzaketatzat jo ezin daitezkeen beste jarduera batzuk ere.
